



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2019ko urriaren 8a

21. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Meseta de Salinas industrialdeko hiltegian hilketa gehiago egiteari buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (3. or.).
- Galdera, Brexitak Erresuma Batuan bizi diren nafarrei begira izanen dituen ondorio sozialei buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (4. or.).
- Galdera, Tuterako Ospitaleko Hemodialisi Unitateari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (5. or.).
- Galdera, Nafarroako Ospitaleguneko Oftalmologiako eta Neuro-Oftalmologiako itzarote-zerrendei buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (5. or.).
- Galdera, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak 103/2017 Foru Dekretua dela-eta emandako epaiari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (6. or.).
- Galdera, Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretuaren aurka jarritako errekurtsioa dela-eta Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak emandako epaiari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (7. or.).
- Galdera, Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasle guztien garraio-zerbitzuaren finantzaketari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, ezpel-sitsak eragindako kalteak geldiarazteko edo arintzeko aurrera eramaten ari diren ekintzei buruzkoa. Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, Lekarozko Aroztegia Jauregiaren inguruan sustatutako turismo-, hotel- eta bizitegi-eremuaren Udalez gaindikoko Plan Sektorialari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, 103/2017 Foru Dekretuaren zenbait artikuluren deusezetasuna dela-eta Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak emandako 216/2019 eta 218/2019 epaiei buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuako funtzionarioek egin behar dituzten txostenei buruzkoa. José Suárez Benito jaunak egin du (11. or.).

- Galdera, zenbait foru legeren aurka konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsuak aurkezteari buruzkoa. Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, Egako adarraren exekuzio-egoerari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, lehen sektorearekin lotutako produktu espainiarrei Estatu Batuetako gobernuak ezarritako mugazergei buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, langileen arloko neurri urgenteei buruzko foru dekretuak izanen duen edukiari eta eragin ekonomikoari buruzkoa. María Virginia Magdaleno Alegría andreak egin du (13. or.).
- Galdera, iruzur fiskalaren, ezkutuko ekonomiaren eta deklaratu gabeko enpleguaren aurka borrokatzeko neurriei buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, 2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretarako gastu-muga taxutu eta negoziatzeko prozesuari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (14. or.).
- Galdera, ZF eta TRW-ren bereizte-operazioaren ondorioei buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, jakitekoa ea Ana Olló kontseilaria babesten jarraitzen ote den. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (15. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Eskola Kontseiluan edo Hezkuntza Batzorde Nagusian dituen bi ordezkariak hautatzeari buruzko arauak (16. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Meseta de Salinas industrialdeko hiltegia hilketa gehiago egiteari buruzkoa.***AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU***

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako galdera, Meseta de Salinas industrialdeko hiltegia hilketa gehiago egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari

Ainhoa Aznárez Igarzak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuoko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak Legebiltzarraren hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko Ekonomia Zirkularraren Zerbitzuak gibelera egitea erabaki du Meseta de Salinas industrialdean 2017ko urtarrilean irekitako hiltegia hilketa gehiago egiteko hasierako baimenari dagokionez, Galarko, Beriaingo eta Noaingo udalek eta instalazioak ukitutakoen elkarteak aurkeztutako alegazioak ikusita. Gobernuak zer neurri hartuko du orain?

Iruñean, 2019ko irailaren 27an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, Brexitak Erresuma Batuan bizi diren nafarrei begira izanen dituen ondorio sozialei buruzkoa.

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Brexitak Erresuma Batuan bizi diren nafarrei begira izanen dituen ondorio sozialei buruzko galdera, Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Asiain Torresek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Herritarrekiko Harremanetako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zalantzarik ez: Brexita munduko gobernu guztien agendan dago une honetan. Mundu gero eta

globalizatu baten ondorioetako bat da hori, eta, beraz, horren eragina Europar Batasuneko herrialdeetatik harago doa.

Logikoa denez, Nafarroari eragiten dio, Nafarroako Gobernuko kontseilariak Parlamentuko batzordeetan egin dituzten agerraldietan garbi geratu denez.

Brexitak, lehen ministro Boris Johnsonek nahi duen moduan era bortitzean gauzatu nahiz era adostuan gauzatu, zenbait ertz ditu, ez soilik ekonomikoa —ezpada soziala ere—, eta afekzio ugari izan ditzake.

Hori dela-eta, honako hau galdetzen diogu Herritarrekiko Harremanetako kontseilariari:

Brexitak zer afekzio sozial izanen du hezkuntzaren, lanaren, eskubideen eta betebeharren arloetan Erresuma Batuan bizi diren 1.500 nafarren kasuan? Halaber, zer neurri ari dira hartzen alderantzizko bidean, gurean bizi diren britainiarren kasuan afekzio hori leuntzeko?

Iruñean, 2019ko irailaren 27an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

Galdera, Tuterako Ospitaleko Hemodialisi Unitateari buruzkoa.

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Tuterako Ospitaleko Hemodialisi Unitateari buruzko galdera, Domingo González Martínez jaunak aurkeztua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarrita-

koaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilari Santos Indurainek 8an, 09:15ean, eginen den Osasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

Aurtengo martxoan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak hedabideen bidez iragarri zuen uda baino lehen onetsiko zela Tuterako Ospitaleko Hemodialisi Unitatea. Zoritxarrez, ez da hala izan. Abuztuaren 16an, proiektuaren esleipena berriro ere iragarri zen hedabideetan. Hori dela-eta, parlamentari honek honako hau jakin nahi du:

- Noiz hasiko dira Tuterako Ospitaleko Hemodialisi Unitate berriaren obrak, noiz aurreikusten da bukatuko direla eta zer data aurreikusten da unitatea abian jartzeko?

Iruñean, 2019ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

Galdera, Nafarroako Ospitaleguneko Oftalmologiako eta Neuro-Oftalmologiako itxarote-zerrendei buruzkoa.

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Ospitaleguneko Oftalmologiako eta Neuro-Oftalmologiako itxarote-zerrendei buruzko galdera, Domingo González Martínez jaunak aurkeztua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martí-

nezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilari Santos Indurainek urriaren 8an, 09:15ean, eginen den Osasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Ospitaleguneko Oftalmologiako eta Neuro-Oftalmologiako itxarote-zerrendek hilabetekak daramatzate handitzen. Hori dela-eta, honako galdera hau egiten dugu:

- Zenbat pertsona dago une honetan bi espezialitate horietako itxarote-zerrendetan, zenbat denbora itxaron behar dute eta zenbat pertsonak gainditu du 6 hilabeteko epea?

Iruñean, 2019ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

Galdera, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak 103/2017 Foru Dekretua dela-eta emandako epaiari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak 103/2017 Foru Dekretua dela-eta emandako epaiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Bakartxo Ruiz Jaso andreak, EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko bozeramaile denak, Ganberaren araudiari jarraiki, ondoko ahozko galdera egin nahi du, Osoko Bilkuran Nafarroako Gobernuako presidente María Chivite Navascués andreak erantzun dezan.

Gaur, urriak 1, Nafarroako administrazioan euskararen erabilera arautzeko 103/2017 Foru Dekretuaren inguruan Nafarroako Auzitegiak emandako epaia ezagutu dugu.

Helegitea jarri zutenek eskatutakoa osotara ontzat hartu ez arren, dekretuaren hainbat artikulua eta xedapen baten zati bat indargabetu ditu auzitegiak. Alde batetik, Nafarroako eremu "misto" eta "ez-euskaldunean" euskara meritu gisa baloratzeko dekretuak egiten zuen proposamena bertan behera utzi du.

Beste aldetik, administrazioak zerbitzu zentralen bitartez herritar guztientzat edo populazioarentzat orokorrean egin behar dituen komunikazio, jakinarazpen, inprimaki, errotuluak eta abar ele bieran egin beharra ere auzitan jarri du. Urrats bat izan zitekeena, alegia, populazio osoaren hizkuntza eskubideak errespetatzea, indargabetu egin du.

Gure ustez, atzerakada nabarmena da nafar hizkuntza eskubideetan eta nafar guztionaren hizkuntzaren garapen eta aurrerabidean. Hori guztia dela eta, honako galdera egin dio Presidenteari:

Zein da Nafarroako Gobernuaren balorazioa 103/2017 Foru Dekretuaz emandako epaien inguruan, eta zer ekimen hartuko ditu gobernuak nafar guztion hizkuntza eskubideak bermatzeko?

Iruñean, 2019ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretuaren aurka jarritako errekurtsioa dela-eta Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak emandako epaiari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretuaren aurka jarritako errekurtsioa dela-eta Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak emandako epaiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko foru parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroa-

ko Gobernuak hurrengo kontroleko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak 000216/2019 zenbakiko epaia eman du, Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretuaren aurka bi sindikatuk jarritako 528/2017 zenbakiko administrazioarekiko auzi-errekurtsioaren kariaz.

Epai horrek 103/2017 Foru Dekretuaren 20.1, 20.2, 21.2, 21.3, 21.4, 31, 35, 39 artikulua baliogabetzen ditu, bai eta laugarren xedapen iragankorreko espresio hauek ere: “Zerbitzu zentralak identifikatu bitartean, eta 27.2, 31.2 eta 39.2 artikuluetan aipatutako lanpostuen zerrenda onetsi bitartean”.

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du epai horri dagokionez, epaia aplikatzeak zer ondorio zehatz izanen lituzke Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko lanpostuetan sartzeko hautapen prozesuetan, eta ba al du epaiaren aurkako errekurtsorik jartzeko asmorik?

Iruñean, 2019ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasle guztien garraio-zerbitzuaren finantzaketari buruzkoa.

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkeztutako galdera, Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasle guztien garraio-zerbitzuaren finantzaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Oinarrizko Lanbide Heziketak DBHko helburuak lortzeko arazoak dauzkaten 15etik 17 urtera bitarteko ikasleak –nahitaez eskolatuta egoteko adina daukatenak, alegia– hartzen ditu nagusiki.

Ikasle horiek hezkuntza sistema uzteko arriskua dute, gizarteratze eta laneratze egoki bat ahalbidetuko dien lanbide-gaitasunik gabe.

Ikasle horiek, gehienetan, beren jaioterrian Oinarrizko Lanbide Heziketako ziklorik ez daukenez, Lanbide Heziketako eskaintza dagoen herrietara joan behar dute ikasketa horiek egitera, eta ikasketa horiek irizpide zeharo desegokiz “derrigorrezkoaren ondokotzat” kalifikatzen direnez, garraio-zerbitzua ikasleek eta beren familiek ordaindu behar dute.

Iragan martxoaren 20an, Parlamentu honetako Hezkuntza Batzordeak UPNren mozio bat onetsi zuen, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baitzen Oinarrizko Lanbide Heziketa egiteko beren bizilekutik mugitu behar duten ikasle guztien garraio-zerbitzua finantza dezan, derrigorrezko gainontzeko ikasketetan bezala.

Hori dela-eta, ahozko galdera hau egiten diot Hezkuntzako kontseilariari:

- Hezkuntza Departamentuak noiz gauzatuko du neurri hori, gure ustez justizia sozialekoa dena eta gure gizartean arrakastaz txertatzeko balioko dieten gaitasunak lortzeko babes handiagoa behar duten pertsonen eragiten diena?

Iruñean, 2019ko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

Galdera, ezpel-sitsak eragindako kalteak geldiarazteko edo arintzeko aurrera eramaten ari diren ekintzei buruzkoa.

ANTONIO JAVIER LECUMBERRI URABAYEN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak aurkeztutako galdera, ezpel-sitsak eragindako kalteak geldiarazteko edo arintzeko aurrera eramaten ari diren ekintzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Javier Lecumberri Urabayenek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilari Itziar Gomez andreari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iruñerria eta Nafarroako eremu asko ezpel-sitsaren izurritea pairatzen ari dira. Intsektu hori,

beldarraren forma duenean, hilgarria da zuhaixkarentzat, elikagai gisa baliatzen baitu ezpela.

Cydalima perspectalis (ezpel-sitsa/beldarra) Asia ekialdetik heldu den espezie inbaditzailea da. Ugalketa-ahalmen handiko sitsa da. Beldarraren forma duenean ezpel-hostoekin elikatzen da, zuhaixka hiltzeraino, eta hain da eragingarria eta kaltegarria non Europa iparraldeko zenbait herrialdetan baso-eremu osoak suntsitu baititu.

Orain dela gutxi ikusi ahal izan dugu izurrite horrek zer-nolako hondamendia eragin duen Nafarroako eskualde atlantikoko espeldietan. Halere, arazoa are larriagoa da, zeren sits hori era geldiezinean ari baita hedatzen, eta Pirinioetara iristen baldin bada atzeraezina eta berealdiko izan daiteke ingurumen-kaltea.

Galderaren testua:

Lana Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua zer ari da egiten izurritea eragiten ari den kalteak gerarazteko edo, gutxienez ere, ahal den neurrian arintzeko?

Iruñean, 2019ko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Javier Lecumberri Urabayen

Galdera, Lekarozko Aroztegia Jauregiaren inguruan sustatutako turismo-, hotel-, kirol- eta bizitegi-eremuaren Udalez gaindiko Plan Sektorialari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako galdera, Lekarozko Aroztegia Jauregiaren inguruan sustatutako turismo-, hotel-, kirol- eta bizitegi-eremuaren Udalez gaindiko Plan Sektorialari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako ahozko galdera hau aurkezten dio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu dezan:

Zertan da Lekarozko Aroztegia Jauregiaren inguruan sustatutako turismo-, hotel-, kirol- eta egoitza-eremuaren Udalez gaindiko Plan Sektoriala, zeina Mercantil Palacio de Arozteguia SLk sustatzen baitu? Nola bermatuko duzu jauregian, Aroztegia etxean eta San Migel ermitan planteatzen den proiektua bertako eta ibarreko kultur-giroan intergratzen dela?

Iruñean, 2019ko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, 103/2017 Foru Dekretuaren zenbait artikuluren deuseztasuna dela-eta Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak emandako 216/2019 eta 218/2019 epaiei buruzkoa.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztutako galdera, 103/2017 Foru Dekretuaren zenbait artikuluren deuseztasuna dela-eta Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak emandako 216/2019 eta 218/2019 epaiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Iñaki Iriarte Lópezek honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Herritarrekiko Harremanetako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten duzu 103/2017 Foru Dekretuaren zenbait artikuluren deuseztasuna dela-eta Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak emandako 000216/2019 eta 000218/2019 epaiei buruz?

Iruñean, 2019ko urriaren 3an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

Galdera, Nafarroako Gobernuko funtzionarioek egin behar dituzten txostenei buruzkoa.

JOSÉ SUÁREZ BENITO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Suárez Benito jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuko funtzionarioek egin behar dituzten txostenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari José Suárez Benito jaunak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zure ustez, Nafarroako Gobernuko funtzionarioek ardura instituzionala betetzen duten kargudun publikoen planteamendu politikoari men eginez egin behar al dituzte beren txostenak?

Iruñean, 2019ko urriaren 3an

Foru parlamentaria: José Suárez Benito

Galdera, zenbait foru legeren aurka konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsioak aurkezteari buruzkoa.

CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkeztutako galdera, zenbait foru legeren aurka konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsioak aurkezteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Uste al duzu foru lege baten aurkako konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsio bat aurkezte hutsa foru autogobernuaren aurkako eraso delat?

Iruñean, 2019ko urriaren 3an

Foru parlamentaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

Galdera, Egako adarraren exekuzio-egoerari buruzkoa.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztutako galdera, Egako adarraren exekuzio-egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauquik, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Elizalde kontseilariak 2018ko azaroaren 8an iragarri zuen Ega ibaiaren adarra egiteko egutegia prest egonen zela 2018aren amaiera alderako edo 2019aren hasiera alderako. Lehendakari andrea, egutegi hori zertan den esan diezagukezu?

Iruñean, 2019ko urriaren 3an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

Galdera, lehen sektorearekin lotutako produktu espainiarrei Estatu Batuetako gobernuak ezarritako muga-zergei buruzkoa.

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, lehen sektorearekin lotutako produktu espainiarrei Estatu Batuetako gobernuak ezarritako muga-zergei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Estatu Batuetako Gobernuak bere lehendakari Donald Trumpen bidez iragarri du muga-zergak ezarriko dizkiela lehen sektorearekin lotutako zenbait produktu espainiarri.

Muga-zerga horiek zer eragin izanen dute Nafarroako lehen sektorearentzat Estatu Batuetara egindako esportazioetan?

Iruñean, 2019ko urriaren 3an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

Galdera, langileen arloko neurri urgenteei buruzko foru dekretuak izanen duen edukiari eta eragin ekonomikoari buruzkoa.

MARÍA VIRGINIA MAGDALENO ALEGRÍA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Virginia Magdaleno Alegría andreak aurkeztutako galdera, langileen arloko neurri urgenteei buruzko foru dekretuak izanen duen edukiari eta eragin ekonomikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Virginia Magdaleno Alegría, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Lehendakariatzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilari Javier Remírezek Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zioen azalpena

Lehendakariatzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak aste honetan zehar eman du jakitera laster zenbait neurri onetsiko direla Funtzio Publikoaren arloan; zehazki, Nafarroako Gobernuko administrazio-kontratudunei gradua ordaintzeko, Iruñeko Epaitegiak eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak oraintsu emandako epaiak betez; eta, beste alde batetik, ordainpeko baimenak aldatzeko eta aitortzeko, amatasunaren eta aitatasunaren arloan, bai eta hautetsi modura jarduteko ere.

Galderaren testua

Nafarroako Gobernuko administrazio-kontratudunei gradua ordaintzeari, aitatasun eta amatasun baimenak parekatzeari eta hautetsi modura jarduteko baimenei buruzko neurri urgenteen foru dekretuak zer eduki izanen du eta zer ondorio izanen du erkidegoaren diru-kutxari begira?

Iruñean, 2019ko urriaren 3an

Foru parlamentaria: Virginia Magdaleno Alegría

Galdera, iruzur fiskalaren, ezkutuko ekonomiaren eta deklaratu gabeko enpleguaren aurka borrokatzeko neurriei buruzkoa.

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, iruzur fiskalaren, ezkutuko ekonomiaren eta deklaratu gabeko enpleguaren aurka borrokatzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak urriaren 10eko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Iruzur fiskalari eta ezkutuko ekonomiari buruz Nafarroako Unibertsitate Publikoak egindako azken azterlana ikusita,

Nafarroako Gobernuak zer neurri ezarriko du iruzur fiskalaren, ezkutuko ekonomiaren eta deklaratu gabeko enpleguaren aurka borrokatzeko?

Iruñean, 2019ko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

Galdera, 2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretarako gastu-muga taxutu eta negoziatzeko prozesuari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, 2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretarako gastu-muga taxutu eta negoziatzeko prozesuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko foru parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egin du, Gobernuko lehendakari María Victoria Chivite Navascuésék parlamentu honen hurrengo Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak 2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretarako gastu-muga iragarri ondoren, Nafarroako Gobernuak zer taxutze- eta negoziazio-prozesu abiara-ziko du Nafarroako Parlamentuak aurrekontuak onetsi ahal izateko?

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, ZF eta TRW-ren bereizte-operazioaren ondorioei buruzkoa.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, ZF eta TRW-ren bereizte-operazioaren ondorioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu talde foru parlamentarien elkarteko eledun Mikel Builek gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du urriaren 10eko Osoko Bilkurarako.

ZF eta TRW bereiziko direla iragarri ondoren, Nafarroako Gobernuak zer ondorio uste du izan ditzakeela operazio horrek eta zer neurri planteatu ditzake?

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

Galdera, jakitekoa ea Ana Olo kontseilaria babesten jarraitzen ote den.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa ea Ana Olo kontseilaria babesten jarraitzen ote den.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioaren eledun José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duen Foru Dekretuaren funtsezko parte baten –eta, hortaz, aurreko gobernuaren hizkuntz politikaren– legezkontrakotasuna deklaratu duen epaia ikusita, Ana Olo kontseilaria babesten jarraitzen al duzu?

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Eskola Kontseiluan edo Hezkuntza Batzorde Nagusian dituen bi ordezkariak hautatzeari buruzko arauak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 7an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legeak ezartzen duenez, 4. artikuluko 1. apartatuko j) letran hain zuzen, Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia osatuko dute, besteak beste, Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeko bi kidek, hark hautatuak.

Joan den maiatzaren 26an Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak egin zirenez gero, Parlamentuak Nafarroako Eskola Kontseiluan dituen ordezkariak hautatzea bidezko da, aipaturiko foru legeko 6. artikuluari jarraikiz, Hezkuntza kontseilariak irailaren 23ko idazkian eskatzen duen bezala.

Legebiltzarreko Erregelamenduan ez da hautespen hori egiteko prozedurarik aurreikusten; beraz, Erregelamendu horren 37.1.bederatzigarrena artikuluan ezarritakoaren babesean, bidezkoa da Mahaiak, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, hautespen hori erregulatzen duten arauak onets ditzan.

Horretarako, Legebiltzarreko legelari nagusiak arau-proposamen bat prestatu du.

Horiek horrela, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 37.1.bederatzigarrena artikuluan xedatutakoaren babesean, hona ERABAKIA:

1. Hautaketa Hezkuntza Batzordeko kide diren foru parlamentarien artean eginen da, txartel bidezko bozketa isilpekoaren bidez.

2. Aldi berean hautatuko dira bi ordezkariak, eta, zenbat ordezkari hautatu behar den, horrenbeste izen jarri ahalko ditu txartelean batzordeko kide den foru parlamentari bakoitzak.

3. Boto gehien lortzen dituzten bi parlamentariak izanen dira hautatuak.

4. Postuetakoren baterako berdinketa gertatuz gero, berdinketa hautsi arte errepikatuko dira bozketak.

5. Hautagaiak aurkezteko idazkia Legebiltzarreko Mahaiari zuzenduko zaio urriaren 10eko 17:30ean bukatuko den epean.

6. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias